



2006-07-14 9. zk.



www.gipuzkoa.euskara.net

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko 130 langile, lanean euskaraz aritzeko gogoz

Foru Ogasuneko langile batzuek lanean euskaraz aritzeko ekimen bat jarri dute martxan. Hemen duzue departamentuan zabaldu duten agiria.



1. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko 130 langile euskaldun, eta seguru asko etorkizunean gehiago, gogoz agertu gara lanean euskaraz bizitzeko: euskaldunon artean lan harremanak euskaraz izan, eta lana euskaraz egiteko pausoak eman. Askotariko taldea osatzen dugu: gizon eta emakume, gazte eta heldu, administrari eta teknikari, arduradun eta kargudun gara; azken finean, ezaugarri, pentsamolde eta izaera desberdineko pertsonak. **Euskaldun bizitzeko gogoak** batzen gaitu. Uste dugu, guretako bakoitzaren familiarekin, lagunartean, afizioetan edo gainerako gizarte bizitzan gertatzen den bezala, lantokia ere euskaldun gisa normaltasunez jarduteko lekua izan daitekeela.

aritu euskaraz.

Guretako **bakoitzak norbere neurriko pausoak emango ditu**: batzuek telefonoa euskaraz hartu, lankide euskaldunekin euskaraz aritu, euskaldunon artean gaudenean lan bilerak euskaraz egin, euskara maila hobetu...; beste batzuek formazioa euskaraz hartu, ordenagailuko aplikazioak euskaraz erabili...; eta beste batzuek, aldiz, lan dokumentuak euskaraz sortu eta erabili. Izan ere, denok daukagu non

2. Eguneroko jardunean, mintzagai, ilusio, kezka eta erronka asko konpartitzen ditugu erdal hiztunekin edota euskara ikasten ari direnekin. Uste dugu elkarbizitza hori aberastasun iturri dela, hiztunen dibertsitatea gauza on bezala onartzen bada. Izan ere, zenbatetan ez gara euskaldunok aritzen normaltasunez erdaldunekin familian edo lagunartean?

3. Ilusio, **ohitura eta erronka berriak** ekarri nahi ditugu departamentuko lan girora. Era berean, espero dugu beste lankide euskaldunen jarrera irekiak, erdal hiztunenak eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak erabilera planaren bidez mantendu dezakeenak lagunduko digutela lantokian euskaraz aritzeko aukera gauzatzen eta herritarrentzako zerbitzuaren kalitatea hobetzen.

Norbaitek argibiderik nahi badu, posta helbide honetara jo dezake: langileeuskaldunok@gipuzkoa.net

Bulego aldaketa

Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiak egoitza aldatu du behin-behinekoz, Donostiako Pio XII. plazara. Zuzendaritza 1991n sortu zenez geroztik, beti Aldundiaren jauregian egon izan da. Orain, jauregiko bulegoak eraberritzeko lanak egin bitartean, Donostiako Amara auzoan izango dugu egoitza.

Gure telefonoak, telekopia eta, jakina, posta elektronikoko helbideak, lehengo berak dira.

